

PRODUKTUAK BIRJARTZEKO ETA BILTEGIRATZEKO JARDUERA OSAGARRIETAN ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEKO PROGRAMA

PROIEKTUAREN HELBURUAK:

- Enplegagarritasuna hobetzea, neurrira egindako ibilbide integralen bidez.
- Gaitasun soziolaboralak handitzea.
- Diagnostiko sozio-profesionalak eta Lan-munduan sartzeko ibilbide pertsonalizatuak.
- Prestakuntza:
 - **Trebetasun soziolaboralak** (12 ordu)
 - Enpatia, asertibitatea
 - Komunikazioa
 - Gatazkak konpontzea eta autokontrola
 - **Gaitasun soziolaboralak** (12 ordu)
 - Erantzukizuna lan-ingurunean
 - Autonomia lanpostuan
 - **Produktuak birjartzeko eta biltegiratzeko jardura osagarriak** (80 ordu)
 - Bezeroarentzako arreta
 - Produktuak birjartzeko eta salmentako puntua egokitzeko eragiketa osagarriak
 - Biltegiko eragiketa osagarriak
 - Eskaerak prestatzea
 - Orga jasotzailea maneijatzeko eragiketak
 - Segurtasuna eta Higienea Lanean

BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- 20 eta 55 urte bitartekoa izatea, eskaera egiten denean.
- Eibarren erroldatuta egotea.
- Langabezian egon eta Lanbiden izena emanda egotea.
- Batxilergo arteko formazioa.
- Gaztelaniaren ahozko nahiz idatzizko ulermen-maila egokia izatea.
- Zerbitzu alorrean profesionalki garatu nahi izatea.

ESKAERA EGITEKO EPEA:

2022ko irailaren 19tik 30era arte (biak barne).

TRAMITATZEKO BIDEAK:

- **Presentziala:** PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa (Untzaga plaza 1, beheko solairua).
- **Elektronikoa:** Udalaren www.eibar.eus webgunearen bidez. Izapidea elektronikoki egiteko, ziurtagiri digital bat eduki behar da (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.)

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- Produktuak birjartzeko eta biltegiratzeko jardura osagarrietan enplegagarritasuna hobetzeko programan parte hartzeko eskabidea, behar bezala beteta. Eredua eskuragarri dago PEGORAn eta udal-webgunean www.eibar.eus.
- Eskatzailearen NANA edo horren balio bereko beste dokumenturen bat.
- LANBIDEk egindako txostena, langabe gisa inskribatuta egondako aldiei buruzkoa.
- Curriculum vitae eguneratua.

- Legezko ordezkariaren kasuan, legeko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua eta ordezkariaren dokumentu bidez egiaztatua. Egiaztapen hori, zuzenbidean baliozkotzat har daitekeen edozein bitartekoren bidez egin daiteke (notario-ahalordeak, eskriturak...).

PROGRAMAREN GARAPENA

1. PARTE-HARTZAILEAK AUKERATZEA
2. BANAKAKO ETA TALDEKO ORIENTAZIOA
 - Diagnostiko espezializatua.
 - Laneratzeko plan pertsonalizatua.
3. FORMAZIOA.
 - Trebetasun soziolaboralak
 - Gaitasun soziolaboralak
 - Produktuak birjartzeko eta biltegiatzeko jarduerak osagarriak
4. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA.